

## GOBERNU BATZARRA

2017 04 03

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hiruan, 08:00etan
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta
<b>Zinegotziak:</b>	alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	
<b>Idazkaria:</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	2.-Elkarteen Udal Erregistroan izena emateko eskaera.
<b>Kontuhartzailea:</b>	3.-“Oporrak Bakean” programa. Saharako umeen harrera. 2017. urteko proposamena.
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	4.- Tolosaldea Garatzen 2017. urteko udal ekarpena.
	5.- Molatu Produkzioak S L enpresari Tolosako Udalaren jarduera sozio-kulturaletarako laguntzaileen zerbitzua adjudiktzea.
	6.- Etxez etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.
	7.- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako 2/2017 zk.a duen faktura zerrenda.
	8.- Iurreamendi Egoitzak egindako eskaera.
	9.-Abegiri 2016ko dirulaguntzaren likidazioa onartzea.
	10.-11 eta 12/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko martxoaren 27an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- Elkarteen Udal Erregistroan izena emateko eskaera.**

Iurramendiko Bizilagun Elkarteak eskaera egin du izena emateko Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroan.

Ikusita elkarte honek betetzen dituela ezarrita dauden baldintzak, eta Kultura, Festak eta Gaztedia Batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Iurramendiko Bizilagun Elkarteak egin duen eskaera, Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroan sartzeko.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea "Irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroaren ordezkariari, Kultura, Festak eta Gaztedia Departamentuari eta Iurramendiko Bizilagun Elkarteari.

## **3.-"Oporrak Bakean" programa. Saharako umeen harrera. 2017. urteko proposamena.**

Tolosako Udalak eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteak bultzatuko dute Tolosaldeko beste udalek "Oporrak Bakean" programan parte hartzea.

Hori dela eta, "Oporrak Bakean" programaren kudeaketa eta gastuaren ordainketa herri bakoitzak hartuko duen ume kopuruaren arabera izango da.

Tolosak, gehienez, 10 umeren harrera egingo du: 1.900 €, gutxi gorabehera, ume bakoitzeko gastua.

Harrera familiak lortzeko arazorik badago, umeak Tolosako aterpetxean hartzeko proposamena ere egin da.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Gizarte Politikako Batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Tolosako Udalak, aurten ere, 10 ume sahararren bidaiak, jarduerak eta koordinatzaile eta monitoreen kontratazioak finantzatzea, guztira, 1.900 €, bidaiaren kostua 700 € izanik, gutxi gorabehera.

**BIGARRENA.**- Lehentasun-irizpideak onartzea 10 haur saharar horien harrera egin ahal izateko:

**2.1.-** Umeek hartzen dituzten familiak Tolosan bizi eta erroldatuta egotea.

**2.2.-** Tolosan familia hartzaileak 10 baino gutxiago badira, Tolosaldean bizi eta erroldatuta egotea, baldin eta eskualdeko beste udalek ez badute finantzatzen.

**2.3.-**“Maiatzak 20, saharar herriaren aldeko” elkarteak egindako eskaerari erantzuna emanez, Tolosaldean familia hartzaileak 10 baino gutxiago badira, aterpetxean hartzen diren gainontzeko umeen bidaiaren kostua finantzatzea.

**HIRUGARRENA.-** Proiektua aurrera eramateko behar diren pertsonen kontratazioa egitea:

**3.1.-Koordinatzailea:** “Oporrak Bakean” programa aurrera eramateko beharrezkoa da koordinatzaile baten kontratazioa egitea jornada osorako, eta kontuan hartuta umeak, gutxi gorabehera, ekainaren amaieratik abuztuaren amaierara egingo direla, 2 bat hilabete, Ana Trapero Urdangarin kontratatzea koordinatzaile gisa, 3 hilabetez eta jornada osorako, 11,5 erretribuzio mailarekin. Kontratazio epeari dagokionez, hurrengo hilabeteetan zehaztuko da data.

**LAUGARRENA.-** Programaren informazioa zabaltzea udal komunikazio-zerbitzuaren bidez.

**BOSGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Giza Baliabideak eta Udal Antolaketa Departamentuari.

#### **4.- Tolosaldea Garatzen 2017. urteko udal ekarpena.**

Tolosaldea Garatzenek, 2016ko abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2017. urterako Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzen egin beharreko ekarpena aurkeztu du. Ordainketa bi zatitan egitea erabaki zen.

Ekarpen honen kopuruak honako hauek dira:

Gestio Plana	109.146,00
KIUB (Konts.bulegoa)	14.125,00
<b>GUZTIRA:</b>	<b>123.271,00</b>

Lehenengo ordainketa 2017ko martxoaren 30ean egingo da: 61.635,50 €.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Ekonomia Sustatzeko Batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Onartzea Tolosaldea Garatzen 2017an egin beharreko ekarpena: 123.271,00 €.

**BIGARRENA**.- Lehenengo ordainketa orain egitea, 61.635,50 eurokoa, eta, bigarrena, berriz, 61.635,50 eurokoa, 2017ko irailaren 30ean egitea.

**HIRUGARRENA**.- Erabakiaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzen.

### **5.- Molatu Produkzioak SL enpresari Tolosako Udalaren jarduera soziokulturaletarako laguntzaileen zerbitzua adjudikatzea.**

Bi mila eta hamaseiko ekainaren 13an, Gobernu Batzarrak honako hau onartu zuen: Tolosako Udalaren jarduera soziokulturaletarako laguntzaileen zerbitzua kontratatzekeo adjudikazio prozedura arautzen duten espedientea eta baldintza plegua.

Bi mila eta hamaseiko abenduaren 22an, Alkatearen Dekretuz, kontratazio prozeduran atzera egitea erabaki zen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 139. artikulua urratzeagatik.

Bi mila eta hamazazpiko martxoaren 3an, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak MOLATU PRODUKZIOAK SLk eta HTK FILM SAK aurkeztutako errekurtsuok ebatzi zituen.

Bi mila eta hamazazpiko martxoaren 10ean, Kontratazio-Mahaia eratu zen eta hark adjudikazio proposamena egin zuen Molatu Produkzioak SLren alde.

Bi mila eta hamazazpiko martxoaren 15eko 414/2017 Alkate Dekretuz, Molatu Produkzioak SL enpresari errekeritu zitzaion bertan aipatzen zen dokumentazioa ekartzeko.

Bi mila eta hamazazpiko martxoaren 23an, dokumentazio hori aurkeztu du.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, eta Administrazio Orokorreko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** HTK Film SLren proposamena prozeduratik kanpo uztea, kontratuen inguruko errekursoen Administrazio Organoaren Ebazpena betez, eta gainontzeko hautagaiek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea, proposatutako ordena honetan:

1.- Molatu Produksioak SL	78,72 puntu
2.- Montajes Integrales Lankor SL.	67,28 puntu
3.- Aisilan XXI SL	63,76 puntu

**BIGARRENA.-** Adjudikatzea Molatu Produksioak SL enpresari Tolosako Udalaren jarduera soziokulturaletarako laguntzaileen zerbitzua.

### Prezioa:

Lan teknikoak eta laguntzaileen lanak: orduko prezioa: 21,95 euro.

Zine proiektioko lanak:

1. Ohiko zine saio arruntetan: 190,79 euro proiektioko.
2. Sarrerarik gabeko zine saioetan: 129,47 euro proiektioko.
3. 400 ikusletik gorako zine saioetan: 190,79 euro proiektioko.

Urteko prezioa: 107.124,93 euro.

### Epea:

Urtebetekoa izango da, beste urtebetez luzagarria, Gobernu Batzordeak hala erabakiko balu.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpena jakinaraztea lizitatzailerak guztiei.

**LAUGARRENA.-** : Erabakiaren berri ematea Molatu Produksioak SL enpresari, hau da, kontratuaren adjudikaziodunari, eta dei egitea kontratua sinatzeko.

**BOSGARRENA.-** Adjudikazioa kontratatzailearen profileen argitaratzea eta iragarkia argitaratzea G.A.O.an ebazpen honen datatik kontatuta, 40 eguneko epearen barruan.

## 6.- Etxez etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako **74.490.77** euroko faktura, martxoko etxez etxeko zerbitzuko orduei dagokiona, onartzea, beti ere fakturaren kopurua ondo badago.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Politikako Departamentuari eta Ilarki Elkargoari.

### **7.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 2/2017 zk.a duen faktura-zerrenda.**

lurreamendi egoitzak **2/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **15.266,21** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **2/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

### **8.- lurreamendi Egoitzak egindako eskaera.**

Ikusita, batetik, lurreamendi Egoitzaren egoera finantzarioak okerrera egin duela azken urteotan, Gipuzkoako Foru Aldundiko tarifen eta egoitzako kostu errearen arteko aldeak eraginda, eta, bestetik, diruzaintza arazoak izan dituela Egoitzak eta zenbait momentutan Tolosako Udalak laguntza eman diola arazoa konpontzeko.

Kontuan izanik azken hilabeteotan egoerak okerrera egin duela berriz, eta momentu honetan beharrezkoa ikusten dela arazo horri irtenbidea ematea, hurrengo asteetako ordainketei beti bezala erantzun ahal izateko.

Ikusita, era berean, hurrengo hilabeteetako diruzaintza arazoei irtenbidea emateko, Tolosako Udalarari 80.000 €-ko diru-ekarpena egitea eskatzen duela lurreamendi Egoitzak, 2017ko ekitaldian Udalak Egoitzari egitea aurreikusitako diru-ekarpenaren barruan, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- 80.000 €-ko diru-ekarpena aurreratzea, 2017ko ekitaldian Udalak Egoitzari egitea aurreikusitako diru-ekarpenaren barruan.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

### **9.- Abegiri 2016ko diru-laguntzaren likidazioa onartzea.**

Gobernu Batzarrak, 2016ko otsailaren 29an, besteak beste, erabaki zuen Abegi Elkarteari 130.800 €-ko dirulaguntza onartzea, eta horretarako beharrezko hitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmen horren xedea zen Tolosako Udalaren eta Abegi Elkartearen arteko lankidetzara arautzea, Elkarte honi diru-laguntzak emateko bazterketa sozialaren egoeran edo arriskuan dauden etxerik gabekoei laguntzeko.

Abegik hurrengo zerbitzuak eskaintzeko konpromisoa hartzen zuen hitzarmen horretan: etxerik gabeko pertsonentzako eskakizun maila beheko programaren barruan, bizilekua, mantenua eta giza laguntza.

Elkarteak aurkeztutako txostenak aztertuta, aurreikusitako zerbitzuak eman dira 2016. urtean, eta, beraz, eman zitzaizen xederako bideratu dute dirulaguntza, zerbitzu hauek beharrezkotzat jotzen direla kontuan hartuz.

Hortaz, aipatutakoa kontuan izanik eta ikusita Abegi Elkartek hitzarmenaren helburuak bete dituela, aurkeztu dituzten 2016. urteko fakturretan ez duela justifikatzen diru-laguntzaren zenbatekoa eta burutzen duen gastua 100.500,83 €-koa dela, Gizarte Politikako Departamentutik egindako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ordaintzea 3.505,98 €-ko diru kopurua, 2016 urteko dirulaguntza osoa likidaltuz.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Politikako Departamentuari eta Abegiri.

### **10.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

La Norma Foral 4/2012 de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG n.º 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2016ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, eta 2017ko

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 25 de octubre de 2016, y a

ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordenantza fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako

Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, % 50eko erreargua mantentzea erabaki zen aipatutako zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Espedientean azaltzen diren zergadunak ez daude bertan azaltzen diren etxebizitzetan erroldatuta.

Hala ere, erreargua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

*“Errekargu honen helburuen espiritu eta irizpideekin bat datorren kasuetan, Gobernu Batzordeak erabakiko du errearguaren salbuespena onartzea ala ez”.*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Errekargua **EZ** aplikatzea 1. eta 2. eranskinean agertzen diren zergadunei, hain zuzen ere, espedientean idazkariak diligentziatuta jasotako zerrendan daudenak. Ez aplikatzeko arrazoiak hauexek dira: 1. eranskinari dagokionez, egoera berezian daudelako, eta 2. eranskinari dagokionez, berriz, etxebizitza horiek hutsik ez daudelako.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

efectos del ejercicio de 2017, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose

en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50 % sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal de habitantes que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Los/las contribuyentes que figuran en el expediente no están empadronados/as en dichas viviendas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo: *“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la admisión o no de la exención del recargo”.*

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ACUERDA

**PRIMERO.-NO** aplicar el recargo a los contribuyentes que figuran en los anexos 1 y 2 relación que, diligenciada por el secretario, figura en el expediente. Los motivos para la nueva aplicación del recargo son los siguientes: en el caso del anexo 1, por considerar que concurren circunstancias especiales y, en el 2, porque dichas viviendas no están vacías.

**SEGUNDO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a las partes interesadas.



**11.- 11 eta 12/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **11/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **280.160,48 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.- 11/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **12/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du; **1.807,74 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.- 12/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**